



**EBAZPENA, 2024KO EKAINAREN 17KOA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, 2024/25 IKASTURTEAREN HASIERAKO PROZESUAN ESLEITU GABE GERATU DIREN LANPOSTUAK FISIOTERAPEUTA, TERAPEUTA OKUPAZIONAL, HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTA, TRANSKRIBATZAILE ETA MATERIALAREN EGOKITZAILE ETA ZEINU-HIZKUNTZAKO INTERPRETE KATEGORIETAKO LAN-KONTRATU FINKO ETA MUGAGABE EZ-FINKODUN LANGILEEN ARTEAN ETA KATEGORIA HORIETAKO LANPOSTU HUTSEN ARTEAN ESLEITZEKO PROZESURAKO DEIALDIA EGITEN DA, BAI ETA ESKAINTZAN EGINDAKO ESKAINTZAREN ONDOREN IDENTIFIKATU DIREN GAINERAKO ORDEZKAPEN EZAGUNAK ETA LANPOSTUENAK ERE.**

Ikastetxeak esleitzeko prozesuan esleitu gabe geratu diren lanpostuak langile finkoen eta mugagabe ez finkoen eta lanpostu hutsen artean esleitzeak prozesu bat ixtea dakar. Prozesu hori langileak planifikatzeko eta kudeatzeko ondoz ondoko jarduerak osatzen dute, eta haren helburu nagusia hasten den ikasturteko matrikularen arabera hezkuntza-zerbitzua emateko beharrezkoak diren hezkuntza bereziko plazak zehaztea da, bai eta ikastetxeei beren jarduera gauzatzeko hezkuntza-langile egokiak eta nahikoak ematea ere.

Esleipen-prozesu hori Hezkuntzako sailburuaren 2019ko ekainaren 4ko Aginduan araututa dago. Agindu horren bidez, Fisioterapeuta, Terapeuta Okupazional, Hezkuntza Laguntzako Espezialista, Transkribatzaile Materialaren Egokitzaila eta Zeinu Hizkuntzako Interprete kategorietan ordezkapenak egiteko izangaien zerrendetan dauden pertsonen lanpostua esleitzea arautzen da, eta Fisioterapeuta, Terapeuta Okupazional eta Hezkuntza Laguntzako Espezialista kategorietan lan-kontratudun langile finkoei, mugagabe ez-finkoei eta bitartekoei ikastetxeak esleitzeko prozedura ezartzen da.

Era berean, esleipen-prozesuaren premisetako bat Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako Hitzarmen Kolektiboa da. Hitzarmen horren III. eranskinean, Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langileen ordezkapenei buruzko araudia arautzen da. Horri dagokionez, hautagaien zerrendak kategoriaren arabera eratzen direla jakinarazten da.

Prozesua urtero deitzen da, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen baten bidez. Ebazpen hori Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratzen da, eta bertan zehazten da egutegia.

Horregatik guztiagatik, honako hau

### **EBATZI DUT:**

#### **Lehenengoa.- Prozesuaren deialdia.**

2024/25 ikasturtearen hasierako prozesuan esleitu gabe geratu diren lanpostuak esleitzeko prozesurako deialdia egiten da, fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile eta material-egokitzaila eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietako lan-kontratudun finko eta mugagabe ez-finkoen eta hutsik dauden lanpostuen artean, bai eta ikasturte hasierako prozesuan egindako eskaintzaren ondoren ezagutzen diren eta hezkuntza-zerbitzua emateko beharrezkoak diren gainerako ordezkapen ezagunen eta identifikatutako lanpostuen artean ere.



## **Bigarrena.- Parte-hartzaileak. Nahitaezko eta borondatezko parte-hartzea.**

1.- Esleipen-egintzan nahitaez parte hartuko dute fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, materialaren transkribatzaile egokitzaila eta zeinu-mintzairaren interprete kategorietako ordezkogaien zerrendako pertsonak, baldin eta eskuragarri badaude eta puntuazio hau edo handiagoa badute:

- a) Fisioterapeuta: 19 puntu.
- b) Terapeuta okupazionala: 5 puntu.
- c) Hezkuntza-laguntzako espezialistak: 3 puntu.
- e) Zeinu-mintzairaren interpretea: 0 puntu.

Era berean, nahitaez parte hartuko dute hautagai-zerrendetako pertsonak, baldin eta adierazitako puntuazio bera edo handiagoa badute eta egoera hauetan badaude, behar bezala egiaztatuta: erditzeagatiko bajaran, lan-istripuagatiko edo lanbide-gaixotasunagatiko aldi baterako ezintasunean, amatasunean, aitatasunean, haurdunaldiko arriskuan eta arriskuko haurdunaldian, edo adopzioagatiko edo harreragatiko aldi baterako bajaran edo aldi baterako etenaldian (seme-alabak zaintzeagatik edo sail honetako irakasle-lanpostuetara deitzeagatik).

2.- Ordezkogaien zerrendako pertsonak, aurreko puntuan ezarritako puntuazioa baino puntuazio txikiagoa badute, ez dute nahitaez parte hartu behar, eta borondatez parte hartu ahal izango dute.

3.- Informazioa emate aldera, B eranskin gisa argitaratu da hautagaiak 2024ko ekainaren 17an zuen lan-egoeraren behin-behineko zerrenda.

Lan-egoera horiek ofizioz eguneratuko ditu Hezkuntza Sailak (eskuragarri gisa ager daitezzen eta, horrela, esleipenean parte hartu ahal izan dezaten), ekoizpenaren inguruabarren kasuan (2024/06/30ean amaitzen direnak), bai eta ordezkapen-kontratuen kasuan ere, baldin eta 2024ko abuztuaren 31 baino lehen amaitu direla egiaztatzen bada.

Hautagaiak 2024-06-27ra arte eskatu ahal izango dute lan-egoera eta hizkuntza-eskakizuna aldatzea (2024/25 ikasturteari begira soilik), ebazpen honen A eranskinaren arabera (zeinu-hizkuntzako interpreteen kasuan, 2024-08-22ra arte).

Era berean, 2024ko maiatzaren 6an ordezkapen-kontratu baten bidez kontratatuta ez zeuden langileek, eta, ondorioz, uko egiteko prozesuan uko egiterik izan ez zutenek, baldin eta 2024ko ekainaren 27a baino lehen ordezkapen-kontratu bat eskaini bazitzaien (2024ko abuztuaren 22a baino lehenagoko KLIen kasuan), data horretara arte uko egin ahal izango diote (2024ko ekainaren 27a – ILS izan ezik – eta 2024ko abuztuaren 22a ILS kategoriarako), ikasturte hasierako esleipen-prozesuan parte hartzeko. Horretarako, jarri harremanetan hemen: [hezk.sind@euskadi.eus](mailto:hezk.sind@euskadi.eus)

## **Hirugarrea.- Eskainitako lanpostuak.**

### **3.1. Lanpostuak eta ezaugarriak.**



Eskainitako lanpostuen behin-behineko zerrenda eta horien ezaugarriak C eranskinaren bidez argitaratzen dira.

Zeinu-hizkuntzako interpreteen kasuan, lan-kontratu mugagabea eta lanpostu hutsa duten langileek lanpostua aukeratuko dute abuztuko ikasturte-hasierako esleipena baino lehen.

Eskainitako lanpostuen behin betiko zerrenda eta horien ezaugarriak Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko dira.

Eskabideak egiteko, lanpostuen behin betiko zerrendan egon behar da. Zerrenda hori zeinu-hizkuntzako interpreteen kasuan, 2024ko abuztuaren 26an argitaratuko da.

### 3.2. Lanpostuen kategoria.

Esleipen-prozesu horretan, kategoria hauetako lanpostuak eskainiko dira:

- a) Fisioterapeuta.
- b) Terapeuta okupazionala.
- c) Hezkuntza-laguntzako espezialistak.
- d) Transkribatzailea, materialaren egokitzaila.
- e) Zeinu-mintzairaren interpretea.

### **Laugarrena.- Kontratu mota.**

Eskainitako lanpostuak honako hauen bidez beteko dira: lanpostu hutsak betetzeko bitarteko kontratua, produkzio-zirkunstantzien kontratua, urte sabatikoa hartzeko ikasturte osoko ordezkapen-kontratuak eta liberazio sindikaleko ordezkapen-kontratua (horien iraupena ikasturte osokoa izango dela aurreikusten da, aurretik lanpostuaren titularraren liberazioa amaitzen ez bada).

Kontratu-modalitatea eskainitako lanpostuaren ezaugarrien artean egongo da, eskainitako lanpostuen behin betiko zerrendan. Zerrenda hori Zeinu-hizkuntzako interpreteen kasuan 2024ko abuztuaren 26an argitaratuko da.

### **Bosgarrena.- Eskabideak.**

#### 5.1 Eskabide elektronikoa.

1.- Prozesuan parte hartzeko, eskabide elektronikoa bete beharko da helbide honetan: <https://hezigunea.euskadi.eus/es/inicio>. Identifikazioa erabiltzailearen eta pasahitzaren bidez egingo da, eta, halakorik ez badu, NANarekin eman beharko zaio alta. Sartzeko pasahitza gogoratzen ez bada, helbide horretan hura berreskuratzeko tresna bat izango duzu.

2.- Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian jasotako Datuak Egiatzatzeko Zerbitzuaren bidez egiaztatuko da eskatzailearen identitatea.



3.- Aplikazioan lehen aldiz sartzean, eskabideari alta emango zaio, eta parte-hartzaile bakoitzak bere identifikazio-datuak eta prozesuan parte hartzeko datuak kontsultatu ahal izango ditu.

## 5.2. Lanpostuak eskatzeko modua.

1.- Pertsona bakoitzak eskabide bakarra egingo du, nahiz eta lanbide-kategoria bat baino gehiagoko lanpostuak eskatu.

2.- Eskakerak datuak sartzeko 500 lerro ditu gehienez.

3.- Lerro bakoitzaren hasieran agertzen den eskaera-zenbakiak (esk. zk.) zehazten du egindako eskaeren arteko lehentasuna.

4.- Eskaera honela egin daiteke:

- Lanpostu jakin batzuei (eskaera zehatza). Kasu horretan, «Postuaren hurrenkera-zenbakia» zutabeari dagokion laukian, lanpostu zehatzari prozedura hasteko ebazpenean esleitutako zenbakia adieraziko da.

- Eskaera generikoen bidez ere egin daiteke. Eskaera generikotzat hartzen da lanpostu jakin bat adierazten ez duena, baizik eta kontzeptu hauek guztiak edo batzuk aukeratuz egiten dena: kategoria, Lurralde Historikoa, lanaldia, profila eta/edo destinoa.

5.- Eskabide berean, lanpostu zehatzen eskaerak eta eskaera generikoak egin daitezke.

## 5.3. Eskabidea aldatzea eta ixtea.

1.- Eskabideari alta eman ondoren, irekita egongo da eta edozein unetan aldatu ahal izango da, aurkezteko epea zabalik dagoen bitartean. Sartutako datuak zirriborro formatuan inprimatu ahal izango dira.

2.- Eskabidea automatikoki itxiko da, epea amaitzen den unean, eta ordura arte grabatu dena hartuko da kontuan.

3.- Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, ezin izango da inolako aldaketarik egin, eta parte-hartzaile bakoitzak inprimaki bat lortu ahal izango du erregistratutako aukera eta eskaerekin.

## 5.4. Baliozkotzeak.

1.- Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, sartutako datuak egiaztatuko ditu sistemak, eta, hala badagokio, ez ditu onartuko parte-hartzaileek baldintzaren bat betetzen ez duten eskaerak.

2.- Era berean, ez dira onartuko elementu inkoherenteak dituzten eskaerak, ezta deialdikoak ez diren lanpostuei edo parte-hartzaileak eskatu ezin dituen zentroei eta/edo lanpostuei buruzkoak ere.

3.- Behin-behineko ebazpena argitaratzen den unetik aurrera, parte hartzeko benetako baldintzak jasotzen dituen inprimaki bat lortu ahal izango da, hau da, zein eskaera eta



aukera onartu diren eta zein baztertu diren. Eskaera ezin izango da aldatu eskaerak ez onartzearen ondorioz.

#### 6.5. Nahitaez parte hartu behar duten hautagaien eskabideen berezitasunak.

Nahitaez parte hartu behar duten pertsonen eskabidean, dagokion zerrendan pertsona bakoitzarentzat agertzen diren hizkuntza-eskakizunari, lanaldiari eta lurralde historikoari buruzko zehaztapenekin bat datozen lanpostu guztiak agertu beharko dira:

**a) Nahitaez parte hartu behar duten pertsonak eskabiderik aurkezten ez badute, sistema informatikoak nahitaezko eskaera bat egingo du, eta parte hartzaileak sarbide-baldintzak betetzen dituen lanpostu guztiak eskatuko ditu. Nahitaezko eskaeran sartutako eskaerak 2019ko ekainaren 4ko Aginduaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera ordenatuko dira.**

**b) Parte hartzera behartuta dauden pertsona horiek borondatezko eskaera bat egiten badute, parte-hartzaileak sarbide-baldintzak betetzen dituen eskaera guztiak agortu gabe, sistemak nahitaez sortzen dituen azken borondatezko eskaeraren ondoren ordenatuko dira esleipenerako (eskaera-zenbakia).**

Eskaera generikoak eta nahitaezkoak sortzetik salbuetsita daude Hezkuntza Laguntzako Espezialisten lanpostuak Zentro Terapeutikoetan eta Gorbeialde Hezkuntza Zentro Berezian, igerilekuan arreta behar dutenetan, bai eta Hauspoa (Zabaltzen) duten lanpostuak ere.

#### 5.6. Borondatez parte hartzen duten hautagaien eskaeren berezitasunak.

Borondatez parte hartzen duten pertsonak sarbide-baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak agortu gabe egin ahal izango dute eskaera.

Nolanahi ere, esleipen-prozeduran eskaera horiek bakarrik hartuko dira kontuan, eta inola ere ez zaie lanpostu bat nahitaez esleituko.

#### 5.7. Lanpostuak automatikoki ordenatzea eskaera generikoetan eta derrigorrezkoetan.

Eskaera generikoetan eta derrigorrezkoetan sartzen diren lanpostuak Aginduan ezartzen den hurrenkeran ordenatuko dira. Ordena hau izango da:

a) kategoriaka, ordena honetan: fisioterapeuta, terapeuta okupazionala, hezkuntza-laguntzako espezialistak, transkribatzaile egokitzailea eta zeinu-hizkuntzako interpretea.

b) lurralde historikoen arabera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa hurrenkeran.

c) lanaldi osoagatik; lanaldi partzialagatik.

d) hizkuntza-eskakizunaren arabera, hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuen hurrenkeran, eta, ondoren, hizkuntza-eskakizunik gabekoen arabera.

e) destinoaren arabera, Lanpostuen Zerrendan hezitzaileen lanpostuak zerrendatzen diren destino-ordenaren arabera.



### **Seigarrena.- Lanpostuak esleitzeko irizpideak.**

1.- Lanpostuak esleitzeko, erreferentziako ikasturteko ordezkapenetarako hautagaien zerrendetako lehenetsua hartuko da kontuan. Pertsona bakoitzari bere eskaera osatzen dutenetatik lehenengo lanpostu libre eta baliouduna esleituko zaio, eta eskaera zehatzak zein eskaera generikoak eta nahitaezkoak garatzearen ondoriozkoak hartuko dira kontuan.

2.- HLEA hizkuntza-eskakizuna dutenek HLEA hizkuntza-eskakizuneko eta 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak eskuratuko dituzte, derrigortasun-datarekin edo gabe.

3.- 1. hizkuntza-eskakizuna besterik egiaztatu ez dutenek 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak eskuratuko dituzte, derrigortasun-datarekin edo gabe.

4.- Hizkuntza-eskakizunik egiaztatu ez dutenek 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak eskuratuko dituzte, derrigortasun-datarik gabe.

### **Zazpigarrena.- Lantokiaren eta bizilekuaren arteko distantzia.**

1.- Prozesu honetan ez da aplikatuko lanaldi murriztuko lanpostu bati uko egiteko arrazoi gisa bizilekua lanpostu horri dagokion ikastetxe publikotik 50 kilometro baino gehiagora izatea.

2.- Horregatik, ekainaren 18ko 09: 00etatik ekainaren 21ko 14: 00etara, biak barne, interesdunek lurralde historikoaren, destinoaren (lanaldi partzialetarako soilik) eta lanaldi motaren aukerak aldatzeko eskatu ahal izango dute. Aldaketa horrek ebazpen honek araututako prozesuan soilik izango ditu ondorioak.

3.- Lanaldi murriztuko lanpostuen destinoa Berritzegunea ez bada, hautagaien zerrendetako pertsonak aukeratu beharko dute lanaldi partzialeko lanpostu bat esleitu nahi zaien zonari dagokion Berritzegunea.

### **Zortzigarrena.- Ondorioak eta kontratazioa.**

1.- Esleitutako lanpostuak betetzeari ezin zaio uko egin, ordezkogaien zerrendaren kudeaketari buruz indarrean dagoen araudian jasotako uko egiteko arrazoiren bat duten ordezkogaien kasuan izan ezik, baldin eta arrazoi hori aurreikusi ezin diren egoera berrien ondorio bada, eskabideak aurkezteko epea hasi baino hiru egun lehenagotik lanpostuaz jabetu arte gertatu bada, eta alegatzen duenaren borondatezko ekintza baten ondorio ez bada.

2.- Esleipenaren ondoren, lan-kontratua idatziz formalizatu beharko da.

### **Bederatzigarrena.- Sexu-delituen ziurtagiria.**

Kontratua formalizatzen den egunean, hautagaiek ziurtagiri negatiboa egiaztatu behar dute, Adingabeak Babesteko Lege Organikoaren 13.5 artikuluan eskatzen den betekizunari buruzkoa, adingabeekin ohiko harremana izatea eskatzen duten lanbideetan, ofizioetan eta jardueretan sartzeko eta aritzeko, edo Administrazioari baimena eman behar diote Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsulta egiteko.



### **Hamargarrena.- Fisioterapeutak.**

Kontratua formalizatzen den egunean, fisioterapeutak elkargokide izan beharko du.

### **Hamaikagarrena.- Egoera bereziak.**

1.- Izangaiek, behar bezala ziurtatuta, egoera hauetakoren batean badaude: erditzeagatiko bajan, lan-istripuagatiko edo lanbide-gaixotasunagatiko aldi baterako ezintasun-egoeran, amatasun- edo aitatasun-egoeran, haurdunaldiko arriskuko egoeran eta arriskuko haurdunaldiko egoeran, edo adopzioagatiko edo harreragatiko aldi baterako bajan edo etete iragankorrean (semea edo alaba zaintzeagatik edo sail honetako irakasle-lanpostuetara deitzeagatik), lanpostua aukeratuko dute ikasturte hasierako esleipen-prozedura honetan, eta lanpostua betetzen emandako denbora zerbitzu-denbora gisa zenbatuko zaie, zerrendaren birbaremazioaren ondorioetarako soilik. Baremoaren ondorioetarako zerbitzu-denboraren aitopen horrek ez du eraginik izango «antzinatasuna» izeneko ordainsari-osagarrian, ez eta Gizarte Segurantzaren ondorioetarako ere, ez baita benetako zerbitzurik ematen.

Aurreko kasuetan dauden izangaiak ikasturtean zehar hasi ahal izango dira lanpostu horretan, egoera hori eragin duen gertaera amaitu ondoren.

2.- Lanpostu bat esleitu zaien langileek, egoera horietakoren batean badaude, dagokion lurralde-ordezkaritzari jakinarazi beharko diote egoera horrek ikasturte berrian jarraituko duen ala ez.

3.- Langile horien kontratuak aurreko paragrafoan aipatutako egoerak amaitzen direnean formalizatuko dira.

### **Hamabigarrena.- Bateriaezintasunagatiko eszedentzia.**

Bateriaezintasunagatik eszedentzian daudenek eta Hezkuntza Sailaren mendeko irakasle lanpostu baten esleipendun direnek lehenbailehen jakinarazi beharko diote Sindikatu Harremanen Zerbitzuari, hezk.sind@euskadi.eus helbidera mezu elektronikoko bat bidaliz eta 94.501.82.70, 94.501.84.29 edo 94.501.83.97 telefonoetara deituz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 17a

**LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA**

**BLANCA GUERRERO OCEJO**